iritzia

euskal telebistatik televisión vascara

Egoera ezaguna da: "Vascongada" delakoei dagokienez, 17 irrati eta bi telebista-kate erdara batuan ari egun osoan. Eta orain, Euskal Telebistaren bezperan egon uste genuenean, Televisión Vasca heldu. Con un poco de euskera, bien folklórico, para no exacerbar a esos euskerómanos que no entienden nada de política...

"El cuarto canal, el canal nacional vasco, será cien por cien en euskera", esan zigun Labaienek orain dela bi urte ta piku. Horrelakorik ez, ordea; Zubiaurrek joan den hilabetean (Diario Vasco, abuztuaren 25-ean) argi eta garbi adierazi digunez. Euskal Telebistarik ez, baina Televisión Vasca ("televisión vascongadilla", hobeki esateko) izango dugu.

– "En los programas de entretenimiento" (sic) se tratará "de equilibrar la oferta de euskera" (???). Ez dakigu zer esan nahi duen. Baina "cien por cien en euskera" ez, jakina.

– "En los programas informativos" (sic) "tendrán que ser bilingues o en castellano". Gauza bera.

– "En los programas culturales" (sic) "habrá que dar cabida también al castellano"....

Hitz batez: inperioaren televisioaz gain, orain televisio "consensuatua", "amejoratua" eta "euzkadilleroa" datorkigu. Bapo mutillak!

Galesen ez dute autonomiarik, ez jaurlaricharik, eta ez erchañik. Baina hemendik aurrera, *22ordu* (astean) izango dituzte *gales hutsez;* eta arratsaldeko zazpietatik hamarretara gainera, lehengoan Ned Thomas adiskideak azaldu zigunez.

Harritzeko eskubiderik al dugu, ordea, PNVaren erdaltzalekeria amorratua eta guztizkoa ezagututa? Ez, benetan.

"Euzkadi", "Muga", eta "Deia semanal" ia-ia euskarazko hitzik batere gabe argitaratzen direla ikusita, nor harrituko da?

– "Hay que tener en cuenta la situación lingüística del país" –entzuten digute. Baina erantzun hau gezurra da. Nola liteke EBBak Nevadako "Basque Studies"-ari espanolez idaztea? Nola liteke Bizkaiko "Comité de Reeuskaldunización" delakoak, AEK-ari espanolez erantzutea, bidenabar "comunicaciones en bilingüe" eskatuz? Nola liteke Donostiako Kultur-Ordezkaritzan, Lasala-enparantzan (Jaurlaricharen bulegoetan, bai) euskaraz *inork* ez jakitea? Nola liteke Euzko Jaurlaricha horrek, Oiartzundin euskaraz egindako sendagile-eskabide bati (euskaldun sendagile bat eskatuz, torturapean hil zuten Muruetagoiena gizarajoa ordaintzeko; ezezkoa biltzeko gainera...) español batuaz erantzutea? Horrela behin eta berriz jokatzen duen partidu *hispanófono* amorratu horrengandik, zer espero liteke, egia esan?

Hemen, beraz, Labaienen agintzen eta borondate onen gainetik, Televisión Vasca hispanofonoa datorkigu; PNVtik aspaldidanik datorren gainerako guztia bezala. PNVak (bere pratikan, eta ez hitzen mailan bakarrik) Baztertua baitu jadanik euskara bere herrigintzatik. *PNVak erdal-herria dakarkigu,* una Cantabria oriental de silbote norteño y chapela ancha.

Ezin hau esan, ordea.

Eta hauxe da PNVak daukan arazo nagusia. Nola engañatu oraindik areago barruan gelditzen diren abertzaleak? Baina lasai egon. Euskal Herriaren salmenta azkengabe horretan, mutilak dira Jaurlarichakoak eta akolitoak. Lortu egingo dute.

Erdararen presioa, horretara, lehen bezain ikaragarria da. Egoera orekatuan egoteko, Hamazazpi irrati eta bi telebistakate, *euskara hutsez,* beharko genituzke.

Horren ordez, telebista *diglosiko eta "harki"* bat eskaintzen zaigu. Eta, besterik ezean, hau nahi dugu behintzat garbi agertzea: gure herria berriz engañatua izan dela. Zeren-eta batere sospetxagarri ez den Tovar irakasleak idaztzia duenez, irratia eta telebista ukatuak dituen hizkuntza bat, heriotzara kondenatzen baita. PNVak hiltzera kondenatu du euskara, eta argi eta garbi esan behar da. Eta euskara gabe, "Euzkadi", "jaurlaricha", "erchaña", eta gainerako folklorekeriak, sobra daude.

Hasteko, eta Labaienek haseran ongi ulertu zuenez, Gutxienez euskal kate bat behar dugu. Gutxienez, berriz ere. Euskara hutsez, jakina. Baina hori ere ez dugu izango. Eta hori ikusita, hau diogu: "Aski, jaunak". Erretira zaitezte!

TXILLARDEGI

bertso berriak

rezolak jarriak modako porruari

trikitixaren bitartez abesteko
doinua: "dantzan hobeto
daki, artajorran baino..."

Jateko "porrusalda"
ez zegon hoberik, (bis)
orain berriz gabiltza
pasatzen komerik,
ixilik nola egon?
hauxe ikusirik.

Jendea jartzen baita
hontaz ohitutzen, (bis)
ta indarren aldetik
segitun ahultzen,
gogorrak zainetatik
besteak erretzen.

Batzuen irabaziz
zart! sartutakoa, (bis)
gero jende askontzat
oso gustokoa,
ez dugu txalotuko
holako jokoa.

Zerrikeri antzean
azpitik jarria, (bis)
beti bezala dago
diru iturria,
izurratzeko ona
geure aberria.

Kaltegarria ez da
bera erretzea, (bis)
jakinez gero honi
tamaña hartzea,
ez dugu asmorikan
inor sendatzea.

Lehengoa zen ona
oraingoa txarra, (bis)
geure artean ez da
errua bakarra,
guztiak baztartzeko
baitago beharra.

Egiak entzutean
ez aztu sekula, (bis)
burua argitzeko
premia dugula,
ta miseria honuntz
etorri zaigula.

Kontuz ibil zaitezte
holakoarekin, (bis)
geu gelditzen gerade
"porrusaldarekin",
edo bestela berriz
neskatxa batekin!

Ramón Rezola
Bilbaona

zokoa

Donostiako arrano beltza

Donostiako Arrano Beltzak hegalditxo bat egin nahi izan du EGUNON euskal egunkariaren txokora. Eta hegaldi honek poz handia ematen dio. Badakizue zergatik? EGUNON euskara hutsean idazten delako eta Donostiako Arrano Beltzak ere euskara bakarrik egiten duelako. Parte Zaharreko Ikatz kalean (Juan de Bilbao, 10) duen habia beroan euskaraz bakarrik egiten dute arranokumeek. Hantxe biltzen gara gure arbasoengandik jaso dugun euskara zaharrari irmo eutsi nahirik. Ez daukagu gure altxorra galtzen uzteko, ez! Donostiako Arrano Beltzak, ba, bizitza luzea opa dio EGUNONi eta hazi eta gizendu dadila urte gutxiren buruan.

EGUNONen bidez jakin du Arrano Beltz honek nola Bilboko euskaldunek aski problema duten euskaraz mintza-praktika egiteko. Ez omen dute biltokirik. Tristea benetan! Iruñekoek badute bat: Zaldiko Maldiko. Donostiarrok ere badugu, ba, euskara praktikatzeko gure biltokitxoa: Parte Zaharreko Arrano Beltza. Mintza-praktika egin nahi baduzu, euskara entzun nahi baduzu, jo Arrano Beltzaren habiara, ongi hartu izango zara eta.

Euskaltoki hau, gainera, libre dago nahi duenak bertan edozein kultur ekintza emateko. Egun batzuk lehenago eskatzea nahikoa du.

EGUNONek ematen digun aukera hau aprobetxatu nahi dugu hilero kultur ekintza bat ospatzen dela esateko, hilaren bigarren hamabostaldian. Egitaraua jakin nahi duenak jo bertara. Gai oso interesgarriak.

Eta gaurkoz besterik ez. Donostiako euskaltzaleoi Arrano Beltza hegoak zabalik zuen zai dagoela eta EGUNONi ZORIONAK!

HABE

EUSKO JAURLARITZA

Kultura Saila

IRAKASLE BERRIAK HARTZEKO DEIALDIA

ONDORIOAK

1982/83 ikasturterako irakasle berriak kontratatzeko, Gasteizen irailaren 25ean egindako azterketen ondorioz honoko zenbaki hauei dagozkien irakasleak izan dira hautatuak:

ARABA

Gasteiz
12
14
35
67
68
70

Bajen betetzailea
84

BIZKAIA

Santurtzi
4
69
87

GIPUZKOA

Hondarribia
61

Irun
33
42
57

Tolosa
3
31
36
41
53

Hauetariko batek huts egingo balu, edota irakasle gehiago behar izango balira honoko hauek ematen dira ordezkotzat:
10
18
21

Deialdi honetan hautaturik geratu diren irakasleak urriaren 4ean goizeko 10etan hasiko dira lanetan.

Gipuzkoakoak, Donostian bilduko dira HABE euskaltegian (Easo, 10-4.).

Arabakoak, Gasteizen HABE euskaltegian (Sancho el Sabio, 15)

Bizkaikoak, Bilbon, HABE euskaltegian (Rodríguez Arias, 6 behea).

Lehen, orain eta beti...

EUSKAL PRENTSA BARIK EZ DA EUSKAL HERRIRIK

Denon artean, atera ditzagun aurrera oraindik bizirik dauden euskarazko aldizkari gutxiak

Aldizkari honi lagunduz, harpidedun eginez, zure kulturari laguntzen diozu: euskal kulturari.

Bere historia osoan JAKIN beti ahalegindu da, eta gaur are gehiago ahalegintzen da, tresna bizia izaten *euskal kulturari bultz egiteko* eta azterketak bizkortzeko. Arintasuna eta sendotasuna bilatuz, egunerokotasuna eta seriotasuna elkartuz, edozein arazotan sakontasuna lortu nahi du JAKINek.

Hori dena aski arrazoi da, gure ustez, zure laguntza itxaroteko, eta harpidetza txartela bete dezazula eskatzeko.

Gure hitza ematen dizugu: harpidedunen ugaritzeak ekar lezan irabazi oro aldizkaria hobetzeko izango da oso-osorik.

HARPIDETZA TXARTELA

JAKIN aldizkariaren Harpidedun egin nahi dut.

Izena / Izene — Herria / Tel

Gurutze (+) bakar batez adierazten dudan eran egingo dut urteko ordainketa (1.200 pta.)

☐ bakar batez ☐ hemporatsuz ☐ nire Banku kontuaren bidez (bete beharko zaio hau)

Banco o Caja de Ahorros — Banku edo Aurrezki Kutxa

Nº de cuenta / Kontuaren zenbakia

Sucursal / Sukursala

Titular de la cuenta / Kontuaren jabea

Emiseie horretako nire kontuan zergatiz azaldu nesdorez JAKINen nire izenean sortez dezakeenen errendoak. Agor

Sírvanse abonar en mi cuenta con esa entidad los recibos que a mi nombre les sean presentados por JAKIN. Atentamente

Firmado / Zinatzailea

Domicilio / Helbide

JAKIN Ategorrieta hirib. 23 - DONOSTIA (13)

LARUNBATERO eginEKIN

jaiegin